# IKASLEEN INFORMAZIOA

OINARRIZKO MAILAKO MINTZAMEN-PROBA

- Proba binaka egingo da (hala behar izanez gero, inoiz hirunaka ere bai).
- Azterketariari ez zaio emango prestakuntza-denborarik proba egin aurretik.
- Azterketariek ariketa grabatu nahi badute, proba hasi aurretik jakinarazi beharko diote epaimahaiari. Epaimahaiak proba osoa (bi azterketariena) grabatzeko, nahikoa izango da bi azterketarietako batek grabatu nahi izatea, nahiz eta beste azterketariak nahi ez izan.
- Azterketariren batek ez badu ulertzen probaren alderdiren bat, ariketa bakoitza hasi aurretik zalantzak argitzeko eskatu behar dio ebaluazio-epaimahaiari.
- Probak 3 atal izango ditu:

## 1. ariketa: AURKEZPENA ETA GALDERAK

- Bi azterketariek aurkezpena egingo dute epaimahaiaren eta beste azterketariaren aurrean.
- Probak bi atal izango ditu:
  - **1.** Aurkezpena: Txartelean eman zaizkion gako-hitzak erabili behar ditu azterketariak.
  - **2.** Galderak: Epaimahaiak egindako galderak erantzun behar dira, hala, aurkezpena osatzeko.

## 2. ariketa: GALDERAK ETA ERANTZUNAK

- Azterketari bakoitzari hiru txartel emango zaizkio; txartel horietan honako hauek egongo dira:
  - Landu beharreko gaia.
  - Gaiari buruzko galderak egiteko erabili behar diren gako-hitzak.

  Ariketarekin hasi aurretik, adibide bat emango zaie.
- Bi azterketariek honako hauek egingo dituzte, txandaka:
  - Beste azterketariari galderak egin.
  - Beste azterketariak egindako galderak erantzun.

## 3. ariketa: ELKARRIZKETA

- Azterketari bakoitzari txartel bat emango zaio; txartel horretan honako hauek egongo dira:
  - Lortu beharreko helburua.
  - Ariketa egiteko erabili behar diren elementu, datu eta egoera batzuk (azterketari bakoitzari ezberdinak).
- Azterketariak, jasotako informazioa kontuan hartuta, saiatuko dira adostasun bat lortzen, emaitza komun bat lortzen, hitzordu bat finkatzen, plan txiki bat egiten... Ariketa gainditzeko ez da beharrezkoa adostasuna lortzea.

**Oharra:** *Epaimahaiak proba amaitutzat emateak ez du esan nahi hari buruzko baloraziorik egin duenik; besterik gabe, proba egiteko aurreikusi den denbora igaro dela esan nahi du.*

## PROBA BALORATZEA

Azterketariak proba honetan jaso dezakeen gehienezko puntuazioa 20 puntukoa da:

- 1. ariketa: 4 puntu
- 2. ariketa: 8 puntu
- 3. ariketa: 8 puntu

Proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa **12 puntukoa** da.

OM : Mintzamen probarako ariketak

1. **Ariketa:**
   - Monologikoa da.
   - Azterketariak bere aurkezpena egingo du.
   - Aztertzaileak hainbat galdera egingo dizkio azterketariari.

2. **Ariketa:**
   - Dialogikoa da.
   - Bi edo hiru azterketarik osatuko dute taldea.
   - Eguneroko gaietan oinarritutako ariketa da.
   - Azterketari bakoitzari 3 txartel banatuko zaizkio.
   - Txarteletan, gaia eta galdera egiteko galdetzailea izango ditu.
   - Informazio horretan oinarrituta, azterketariak galdera bat egingo du.
   - Azterketari kideak galderari erantzungo dio.
   - Azterketariek hasieran txartel bat erakutsiko zaie, adibide gisa.
   - ADIBIDEZ:

| | |
|---|---|
| ADIBIDEA ⇨ | EGUNEROKO BIZIMODUA<br>**ZER...?**<br>*-" Zer egiten duzu igandeetan?"*<br>*-"Batzuetan mendira joaten naiz."* |

| | |
|---|---|
| Azterketariarentzako txartela ⇨ | EGUNEROKO BIZIMODUA<br>**NOIZ...?** |

| | |
|---|---|
| Azterketariarentzako txartela ⇨ | EGUNEROKO BIZIMODUA<br>**NOREKIN...?** |

**3. ariketa**

- dialogikoa da.
- Bi edo hiru azterketarik osatuko dute taldea.
- Egoera bati buruzko informazioa banatuko zaie.
- Azterketari bakoitzari dagokion informazio zatia emango zaio.
- Azterketariak ados jartzen saiatuko dira.
- **ADIBIDEZ**

| **NON AFALDUKO DUGU?** | | **NON AFALDUKO DUGU?** |
|---|---|---|
| **A IKASLEA**<br><br>- Elkarrekin joango zarete afaltzera.<br>- Ez dakizue nora joan: txinatar batera edo pintxoak jatera.<br>- Defendatu zure proposamena eta <u>ados jartzen saiatu.</u> | | **B IKASLEA**<br><br>- Elkarrekin joango zarete afaltzera.<br>- Ez dakizue nora joan: txinatar batera edo pintxoak jatera.<br>- Defendatu zure proposamena eta <u>ados jartzen saiatu.</u> |
| TXINATARRA:**ALDE ONAK**<br>- oso merkea.<br>- Zerbitzariak, atseginak.<br>- zentrotik hurbil. | | TXINATARRA:**ALDE TXARRAK**<br>- janari eskasa.<br>- giro hotza.<br>- autoa aparkatzea, arazoa. |
| PINTXOAK: **ALDE TXARRAK**<br>- garestia.<br>- esertzeko lekurik, ez.<br>- tabernak, zaratatsuak. | | PINTXOAK: **ALDE ONAK**<br>- kalitatezko janaria.<br>- zerbitzariak, azkarrak.<br>- giroa, alaia. |